

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

5656

IRAGARKIA, 2024ko azaroaren 26koa, Industria Administrazioiko Gipuzkoako lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, Urnieta, Lasarte-Oria eta Andoaingo udal-mugarteetan Buruntzako parke eolikorako alde zurreko administrazio-baimenaren eskaera.

115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), Buruntzako parke eolikorako aurkeztutako alde zurreko administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

- Eskatzailea: Mendiko Haizie S.L.
- Tartean dauden udal-mugarteak: Urnieta, Lasarte-Oria eta Andoain (Gipuzkoa).
- Haize-sorgailuen kopurua: 3.
- Instalaturako potentzia gordina: 15 MW.
- Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

Parke eolikoaren mugakide den poligonalak koordenatu hauek ditu: UTM (ETRS89, HUSO 30)		
Erpin zk.	X koordenatuak	Y koordenatuak
01	579.251,728	4.786.942,277
02	579.534,587	4.786.992,316
03	579.752,122	4.787.093,590
04	579.979,046	4.787.210,031
05	580,193,815	4.787.335,788
06	580,438,921	4.787.557,465
07	580,623,933	4.787.756,952
08	580,736,487	4.787.926,759
09	580,809,394	4.788.115,396
10	580,780,314	4.788.244,142
11	580,720,142	4.788.339,642
12	580,570,425	4.788.388,852
13	580,401,622	4.788.383,271
14	579.333,125	4.787.658,082
15	579.195,285	4.787.461,110
16	579.138,117	4.787.304,381
17	579.152,747	4.787.123,846

Hori guztia argitaratzen da, eta hogeit eguneko epea ematen da, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera lehia-eskabidea aurkeztu dezaten Industria Administrazioiko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan edo izapidetze elektronikoaren plataformaren bidez.

Donostia / San Sebastian, 2024ko azaroaren 26a.

Industria Administrazioiko Gipuzkoako lurralde-ordezkaria,
AGUSTÍN AROSTEGI ARTETXE.